



# *Marlown ala Marlowen? Shelleyk ala Shelleyek?*

Nola deklinatu **W** edo **Y**  
grafemaz amaituriko izen  
berezi arrotzak **?**





**W** eta **Y**, hitzaren amaieran, bokalak dira.

Beraz:

- **Marlown** \*Marlowen
- **Shelleyk** \*Shelleyek

Richard Rothwell, 1840 (Wikipediatatik hartua)



1818an idatzi zuen Mary Shelleyk *Frankenstein*.  
Marlown bizi zen idazlea garai hartan.





W edo Y letrarekin  
amaitzen diren mailegu  
batzuk badira *Hiztegi*  
*Batuan*:

- bungalow
- cash flow iz. Ekon.

- cowboy
- hockey
- playboy

Baita beste zenbait  
hiztegitan ere (*Elhuyar*,  
*Zehazki...*):

- overflow iz. *Infor.*
- show

- bogey iz. *Kir.*
- disc-jockey
- gay
- gray
- jockey
- poney
- skay





## Hona adibide batzuk:

- Jakako bungalowan emango dute asteburua.
- Hockeyan jokutzen dugu larunbatero.
- Aurrerakinaren bi herenak cash flowaren eta aurreko urteko salmenten arabera itzuli behar dira.
- Filmetako cowboyek bezala hitz egiten du!





## Jarraibidea:

Hitz amaierako **w** eta **y** letrak **u** eta **i** balira bezala tratatzen dira atzizkiak eranstean<sup>1</sup>. Alegia, **Donapaleu**, **Ameztoi**, **egitarau**, **espalo**i eta gisakoak bezalaxe:

- Halleyk, Halleyri, Halleyren...
- Glasgown, Glasgowko, Glasgowntik...
- cowboyak, cowboyari...
- showan, showko...

<sup>1</sup> OHARRA. Jarraibideak berdin balio du ahoskera zaindurako zein idazkerarako.



Aspaldi plazaratu zen gaia  
**EIZIEren ItzuL** posta-zerrendan,  
eta berriki jarri da hizpidean  
zerrenda horretan. Hona eztabaidaren  
hariari jarraitzeko erreferentziak:

Moreno, Maialen (2010-05-17; 08:08:06). “[itzul] W-arekin amaitutakoen deklinabidea”. Hemendik eskuratua:

<http://postaria.com/pipermail/itzul/2010-May/016417.html>

Mallona, Agurtzane (2015-01-14; 15:33) “[itzul] Kanpoko izen berezien deklinabidea, -y edo -w amaierako diptongoetan”. Hemendik eskuratua:

<http://postaria.com/pipermail/itzul/2015-January/023670.html>

